B
BARREN
ELGOIBAR - 834. zenb. - XIX urtea - 2012-08-23
TOKIKOM

# Altxa gora jaixetan!





# Jai zoriontsuak!

eaj pnv

EGI ELGOIBAR

Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromezu Diploma daukate 507 establezimenduk eta, urte amaieran 800 izango dira. Arlo horretan Praktika egokien programaren helburua zerbitzuen kudeaketa hobetzea da. Aldi berean, bereziki negozio txikiei zuzenduriko programa da , Kalitate Turistikoaren Q-a ziurtagiriak baino exijentzia maila bajuagoa du, baina epe luzerako kompromezu batekin. "Kalitate turistikoarekin konpromezua" ezaugarri-bereizgarriak formazio konpromezua errekonozitzen du eta dedikazio eta zehaztasuna establezimentuen kudeaketan kalitatearen hobekuntza planen bidez. Bere helburu nagusia bezeroarekiko zerbitzuan hobekuntza etengabea da.

Compromiso de Calidad Turística
Konpromisoa Kalitate Turistikoarekin

# *"Kudeaketa eta antolaketa prozesuen gainean ikasteko aukera eskaini digu SICTED ziurtagiriak"*

**Zeintzuk izan dira SICTED Turismo Kalitatearekiko Konpromisoaren ziurtagiaren alde egiteko arrazoiak?**
Euskal enpresen kalitatea hobetzeko apustua egin zuen AKTIBAk (Turismo aktiboaren Euskadiko elkartea) hasieratik, eta bide hori jarraitzera bultzatu gintuzten erakunde horretako bazkide guztiok.

**Zer mesede egin dio zure erakundeari Turismo Kalitatearekiko sistema ezarri izanak?**
Abantaila handiena zera da: ikustea egunetik egunera gauzak hobeto egiten ari zarela zure enpresa barruan, nahiz eta gure kasuan behintzat, Turismo Kalitatearekiko sistema ezartzeak dakartzan jardunbide egokiak aurrez ere saiatzen ginen betetzen, modu batera edo bestera. Izan ere, horiek betetzea edozeinen esku dago, izan enpresa txikia, ertaina edo autonomoa. Hori bai, zenbait kasutan balio izan digu lehen erabiltzen genituenak baino formato sinpleagoak eta erabilgarriagoak izateko, eta beste zenbait kasutan hobetzeko sistema berriak aplikatzeko ere bai.



**Zer hobekuntza izan dituzue barruan antolamenduari dagokionean? eta kudeaketari dagokionean? Eta azpiegituren alorrean zertan egin duzue hobera?**
Dauzkazun baliabideekin enpresa nola kudeatu eta nola antolatu berraztertzera bultzatzen zaitu, eta garrantzitsuena horixe dela esango nuke.

**Zeintzuk hobekuntzak izan dute eragin zuzen bezeroengan?**
Bezeroak igarriko du hasi ginenean bezain motibatuta eta zentratuta jarraitzen dugula lanean. Bezeroak gutaz daukaz pertzepzio hori izango da etorkizunean oroituko duena, eta hori oso kontuan izan dugu lanean hasi ginenetik.

**Animatuko zenituzke gainerako enpresariei euren enpresetan kalitate sistema ezartzera?**
Motibatuta baldin badaude eta honi denbora apur bat eskaintzeko aukera baldin badute bai behintzat.

**Uste duzu kalitate sistema hau ezartzeak lehiakorrago egiten zaituztela?**
Momentuz ez daukat horren gaineko balorazio bat egiteko behar beste datu.



**Kudeaketa prozesuaren barruan landutako eta ezarritako eskuduntzen artetik zeintzuk dira zure ustez garrantzitsuenak eta erabilgarrienak?**
Denak dira garrantzitsuak, eta ez nuke bakar bat nabarmenduko. Hori bai, gauza bat nabarmenduko nuke: kalitate sistema hau ezartzeak kudeaketa eta antolakuntza prozesuen gainean ikasteko eta ezagutza orokor bat izateko balio duela.

**Zer onura egiten dio zure establezimenduari alor bereko beste establezimendu batzuekin elkarlanean jarduteak? (jatetxeak, ostatuak, turismo aktibiko enpresak, interpretazio zentroak, turismo bulegoak...)**
Badira urte batzuk elkarlanean dihardugula eta elkarlanean jardute horrek bakarka arituta eskaini ezingo genituzkeen zerbitzu sorta bat eskaintzeko aukera ematen digu. Era berean, ingurua, sektorea eta bere ezaugarriak ezagutzeko aukera ere ematen digu.

**Eusko Jaurlaritzak eta Turismoaren Euskal Agentziak, Basquetourrek, Euskalitekin lankidetzan, behar dituen tresnak eta laguntzak ematen dizkiote enpresaburuari, enpresa lehiakorragoa izan dadin, ondorengo programa hauen bitartez:**

- **Jardunbide egokirako programak: helburua enpresarioen "profesionalizazioa" eta jomuga-konzientzia sortzea da. Euskadin Kalitate Turistikoarekin Konpromiso Diploma duten 507 establezimendu daude.**
- **Kalitate Turistikoaren Q-a programa: bezeroen itxaropenak betetzea eta asebetetzea bermatzen dituen programa. Euskadin 268 establezimenduk jaso dute Kalitate Turistikoaren Q-a bereizgarria.**
- **EFQM Bikaintasun eredua: erakundeei kalitatearekin bikaintasun mailaraino igotzea proposatzen dien programa. Eredu honetan parte hartzen dihardute 14 establezimendu daude Euskadin.**

**Jar egizu Kalitate Turistikoarekin Konpromisoa bereizgarria zure establezimenduan!**
**946 077 594 - www.basquetour.net - info@basquetour.net**

EUSKADI

EUSKADI EREDUA MODELO EUSKADI

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

# MAALA kafetegia

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 257 421



Pintxoak
Razioak
Bokatak
Entsaladak
Hanburgesak





# GABAZ



Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 531 026

# Aurten baitta; badatoz…



Urtiak juan, urtiak etorri... aurten ere hortxe egongo gera daukagun dana eman eta ondo pasatzeko prest! Aillegau dira sanbartolomiak, munduko jairik onenak!

Txupinazotik hasi eta umien egunera, gaztien egunetik Txikira, jubilauenetik baserrittarrenera... Hala ere, egun berezixa dauka txarangiak, benetan magikua dana... Praka eta alkondara zurixakin ataratzen geran eguna, zapi gorrixa lepuan, iñoiz baiño goizago hasten doguna, sekula baiño zikiñago eta pozixago amaitzen doguna... Txiki Eguna.

Nerbioso egoten gera aurreko egunetik, juergia bota edo ez, eziñ lorik eginda, ohian bueltaka eta bueltaka... konturatu ordurako gaiñera, alarmiak jotzen dau, eta hasi da Eguna! Dianiarekin hastia baiño gauza hoberik ez dago, ollo ipurdixa azalian, irribarria ahuan! Probau ez dabanak ez daki ze galtzen daban; goiz goizetik bizitzeko eguna!

Musikiaren lehen notekin egunari hasieria eman eta hor segitzen dogu, jo eta sua, arratsaldeko laurak-bostak arte gitxienez! Eta orduan, eguardi-atsalde buelta horretan, sentitzen dogu lehenengo aldiz Txarangan debutau genduanian (eta hurrengo urtietan ere bai) sentitu genduana: herri honetan musikiak daukan magixia! Eszenarixora ixota, herrixari begira, poztasuna airian... eta geuria dan momento hori, elgoibartarrona, betirako grabauta geratzen da memorixan. Hori da geure eguna, geure momentua, hau da geure herrixa eta hónetxek geure jaixak. Eskerrik asko, Elgoibar! Mauxitxa danaz, zeuek izanaz... Aurten baitta? Gu prest! Ondo pasau jaixak!

Mauxitxa txaranga

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

## "Aillegau dira sanbartolomiak, munduko jairik onenak!"

Gizonezkoen ile-apaindegia
JOSE ANTONIO
Ilea zaintzeko *Kerastase* eta *L'oreal* tratamenduak, gizonezkoentzako zein emakumezkoentzako




Errosario kalea, 30
Elgoibar
Tele.: 943 741 492




- Etorri ahala atenditzen dugu
- Gazteentzako moda zein klasikoa
- Ilea mozteko, behin erabili eta botatzeko tresnak
- Legeak ezarritako higiene neurriak

www.peluqueriajoseantonio.com

# Zuhaitz aisialdi taldea
# Partaide eta antolatzaile



**Askok ez dute Zuhaitz aisialdi taldea ezagutuko, baina bera da Elgoibarren sortu zen estreinako aisialdi taldea. Parrokiari lotutako taldea da, eta zortzi bat lagunek osatzen dute gaur egun. sanbartolomeetako ekintzetan parte hartzeaz gain, antolatzaile lanak ere egiten dituzte. Barren astekaria Zuhaitz taldeko Xabi Alberdi, Maider Oñederra, Ainhoa Zapata eta Aaron Segurarekin bildu da, sanbartolomeei buruz hitz egiteko.**

**Ainhoa Andonegi**

Jaiak antolatzeko herritarren elkarlana ezinbestekoa da, eta horretan dihardu azken hamar urteotan Zuhaitz aisialdi taldeak. Izan ere, ekitaldiak ikustera joatea ondo dago, baina norbaitek antolatu behar ditu. Gazteen eta umeen eguneko egitarauan agertzen da Zuhaitz aisialdi taldea, antolatzaile moduan. Goitibehera jaitsiera eta futbol partidak zezen-bolaztatuekin antolatzen dituzte gazteen egunean, eta marrazki lehiaketa eta bazkaria, umeen egunean. Ekintza guztiak ere, aski arrakastatsuak. “Ekintza horiek ezin dira egitarautik kendu”, esan dute Zuhaitzeko kideek. Goitibehera jaitsieran San Rokeko aldapa jendez gainezka egoten da, eta herritar asko urte osoan zehar egoten dira goitibehera jaitsieran parte hartzeko zain. Kanpotik etortzen dira asko San Rokeko aldapa ziztu bizian jaistera, baina herriko taldeak ere gero eta gehiago dira. Zuhaitz taldekoen ustez, Elgoibarko gazteak “oso partehartzaileak” dira. Horren adibide da zezen bolaztatuekin egiten dituzten futbol partidetan parte hartzen duen koadrila kopurua. Iaz, esate baterako, ordu erdi laburtu behar izan zuten ekitaldia, koadrila askok erreka jaitsieran parte hartu behar zutelako segidan. Antolatzaileen arteko elkarlana nabarmendu dute, eta horretarako ekitaldiak elkarren artean trabarik ez egitea ezinbestekoa da. Antolatzaileak koordinatzea da garrantzitsuena, jai konpletoak eta partehartzaileak prestatzeko.

> **“Elgoibarko gazteak oso partehartzaileak dira”**

Hala ere, partaidetzari dagokionean badago zer hobetu, eta Zuhaitz taldekoek ema-

kumezkoen partaidetza sustatu nahi dute. Oraindik orain, mutilak gehiago dira goitibeheretan zein futbol partidetan, eta emakumezkoen parte-hartzea handitzeko sari bereziak emango dizkiete aurten ere emakumezkoen taldeei. Era berean, koadrilak mozorrotuta joateko eskaera egin dute, eta orijinaltasunak saria izango duela aurreratu dute.

Jaietan lan egitea gogorra dela aitortu dute, baina onartu dute ekitaldiak beste modu batean bizitzeko aukera ematen duela antolakuntzan jarduteak. Ardura handia izan arren, gozatu ere egiten dute, eta ekitaldiak ondo irteten direla ikusteak “satisfazio handia” ematen die.  Hala ere, ekitaldiak prestatzerakoan orijinalak izatea zaila dela uste dute. “Dena asmatuta dago, eta gainera, ekitaldiak arrakastatsuak badira, zergatik kendu?” Egin daitekeen bakarra ekintzak hobetzea da. Hala egin zuten orain urte batzuk, futbol partidetan piszina txiki bat sartuta. “Piszinak sekulako jokoa ematen du, eta iaz kendu egin bagenuen ere, aurten berriz jarriko dugu”.



Antolatzaile eta partaide gisa bizi dituzte sanbartolomeak, eta beraiek antolatutakoak ez diren ekitaldiak ikustera joatea ere izugarri gustatzen zaie. Elgoibarko jaiak “konpletoak” iruditzen zaizkie, eta adin-tarte bakoitzak bere eguna edukitzea “aberatsa” dela uste dute.



## Zuhaitz aisialdi taldea

Elgoibarren aisialdi talderik ez zegoenean sortu zen Zuhaitz, orain dela hogei urte baino gehiago. Parrokiari lotuta sortu zuten, garai hartan aisialdian zegoen hutsunea betetzeko. Gerora, Gurutze Gorriko Gazteria sortu zuten, eta Zuhaitz aisialdi taldearen lekukoa hartu zuen. Taldea ez zen desegin, baina ez zuen funtzionatzen. Xabi Alberdik berak gidatzen zuen Gurutze Gorriko Gazteria, eta Zuhaitz aisialdi taldea ere ezagutzen zuenez, hura indartu behar zela pentsatu zuen. Pentsatu eta egin. Azken hamar urteotan martxan dago berriz taldea, eta, gainera, atea zabalik du, herritarrak hartzeko.










HIZKUNTZ SOLUZIOAK
www.ils.es
IRAILETIK HASITA 2012-2013 KURTSOKO IKASTAROAK
· Maila guztiak.
· Titulu ofizialak.
· Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
· Talde murriztuak, enpresako klaseak.
· Ikastaroak atzerrian.
· Multimedia gela.
· Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.
ils@ils.es
Azkue auzoa (IMH)
Tel.: 943 744 040
Upaiz Zaharra, 12 behea
20870 ELGOIBAR
ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETAZIO ZERBITZUAK
· Esperientzia zabala duen lan taldea:
- Teknikoa (makina-erreminta).
- Komertziala.
- Nazioarteko proiektuak.
· Goi-teknologiaren erabilera.
· Zerbitzu azkarra eta kalitatezkoa.
· Prezio lehiakorrak.
Ondo pasa jaiak!!
ILS
Industry Language Services
inglés
francés
alemán
italiano
chino


Ondo pasa jaiak!!!
Elgoibar:
San Bartolome kalea, 35
Tel.: 943 740 345
Ermua:
Diputazio kalea z/g
Tel.: 943 176 803
Muruamendiaraz
GOZODENDA


USUA kafetegia
Menuak
Plater konbinatuak
Bokatak eramateko
Pintxoak
Tel.: 943 256 028
Lanbroa
Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 743 811 / 943 740 806
Astelehenetik ostiralera irekita goizeko seiretatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko zortziretatik aurrera.
ONDO PASA JAIXAK!!


Alzolako Urak-ek bezero eta bizilagunei
San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue!
Jai zoriontsuak
ALZOLA
www.alzola.com



Javier Nuñezek
San Bartolome jai zoriontsuak
opa dizkizue elgoibartar guztioi

PP elgoibar

Beristain
LOGISTIKA BANAKETA
Albitxuri industrigunea, E partzela (Elgoibar)
Tel.: 902 180 635

Ondo pasa jaiak!

ongi iturgintza
BAINUGELAK • GASA • KLIMATIZAZIOA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Pedro Muguruza Etorbidea 11-behea - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa - Tfno.: 943 25 45 22 - Faxa: 943 25 45 23
ongi@ongielgoibar.com - www.ongielgoibar.com

Ondo pasa jaiak!

PAULANER TXARRIDUNA

Jaietarako mahaiak erreserbatzen ditugu!
Menu bereziak!

Ermuaranbide 1, - Elgoibar - Tel.: 943 740 490





# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:
ELGOIBARKO UDALA
MENDAROKO UDALA
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO





Ainhoa Lendinez

Kaixo, Iñi! Mendiak esperientzia gazi-gozoak sortzen ditu. Sentsazio hori daukat buruan aspaldion. Uztaileko bigarren asteburuan Chamonixen izan nintzen Mont Blanceko istripuaren berri jasotzen eta ematen. Lehenengoz joan nintzen Alpeetako bailara eder horretara. Zoragarria! Mendia betidanik gustatu zait ikaragarri, baina hango istripua bertatik bertara bizitzeak, hiru egunez istripua 24 orduz buruan edukitzeak, arriskuaz ohartarazi ninduen. Menditzar horiek hor daude, gu noiz joango zain. Joaten bagara ondo, eta joaten ez bagara ere bai. Mendia beti hor. Bi aste geroago Pirinioetan egon naiz berriro. Fachako ertz zoragarrian, lagun min batekin. Ni ez naiz oraindik asko ibili eskalatzen, baina lagun horri esker, sentsazioa daukat arriskua bera ere ez dudala ikusten. Noranahi joango nintzateke, bi aldiz pentsatu ere egin gabe. Alpeak, Pirinioak... eta bai, nahi gabe edo, buruak beste mendi batzuei ere begiratzen die.

## “Alpeak zoragarriak, Pirinioak ikaragarriak, baina gurea bezalakorik ez”

Non gogoa, han zangoa? Ez dakit ba. Beti gehiago nahi izate hori... Dena den, ohartzen naiz, Mont Blanc gertutik ikusita ere, Fachako ertz zoragarrian horrenbeste gozatuta ere, Aiako harria edo Anboto bera aski eta sobera direla ni hunkitzeko. Joan den astean kilometro bertikaleko bidetik eraman ninduen nere gida pribatuak Mariren paradisura, Iñi. Ederra! Izan ere, asteburu asko izan ditut azkeneko honen antzekoak Pirinioetan: lagun ona aldamenean, ikuspegi zoragarria, mendiko neke lehergarria, jateko gozoa eta etxera itzultzeko gogo gutxi. Baina astelehenean, asteburuko argazkiak berriz ikusi, eta Karakatera joateko gogoz esnatzen naizenean, badakizu zer pentsatzen dudan? Alpeak zoragarriak, Pirinioak ikaragarriak, baina Euskal Herria bezalakorik ez!



Iñigo Lariz

Aupa, Ainho, gure herri txiki honetan mendi eder askoak ditugu eta antzinako gizakiak ohartu ziren horretaz. Muskurutxu gaina trikuharri eta dolmenez josita egotea ez da kasualitatea, eta ezta euskal mitologiaren erreginak, Marik, Anbotoko txoko ikusgarri batean izatea bere bizilekua. Betidanik sortu dute mendiek gizakiarengan erakarpen berezia. Gure Euskal Herri txiki honetan mendi eder askoak ditugu. Haizeak orrazten dituen belardiz josita dauden asko eta harri malkartsu eta zailtasunez beterik beste batzuk. Azken horiek dira gizakiaren miresmena sortzen dutenak. Gailur horiek itsas mailatik gorantz kilometroetan zehar bultzatu eta jaso dituzten indar jainkotiar berdinek haien tontorrera iritsi nahi izatera garamatzate.

Geroz eta altuago iritsi nahi izate horretan, Europako gailurra den Mont Blanc entzutetsuak mendizaleak erakartzen ditu, eta igoerako bide normala mendizalez josita egoten da Aste Santuko prozesioa bailitzan. Geroz eta material hobea izateak eta alpinismoko tekniken ezagutzak ia denon eskura jarri ditu mendirik altuenak ere. Baina ez dugu ahaztu behar txindurri ñimiñoak baino ez garela handitasun horren aurrean.

Merezi al du gailurreraino iristeko hartu beharreko arriskuak? Galdera honi askok ezezko borobila emango diote. Beste askori arrisku hori hartzeak bizia ematen die. Terray mendizale frantsesaren gogoetak dioen bezala mendizaleak alferrikakoaren konkistatzaileak gara.

## “Ez da kasualitatea Muskurutxu gaina trikuharri eta dolmenez josita egotea”






# 140.000 euroko aurrekontua izango dute jaiek

2012ko San Bartolome jaietako egitaraua 140.000 eurorekin osatu du Elgoibarko Udalak, hau da, iaz baino 5.000 euro gutxiagorekin. Aurten 100 eta 50 urte bete dituzten Alcorta enpresako eta Elgoibar Ikastolako ordezkari banak botako dute, bestalde, jaiei hasiera emango dien suziria udaletxeko balkoitik.

2008tik hona ia erdira jaitsi da Elgoibarko Udalak San Bartolome jaietara bideratzen duen aurrekontua: 233.800 euroko aurrekontua izan zuten jaiek orain lau urte, eta 140.000 eurokoa izango dute aurten. Abuztuaren 22tik 31ra, bederatzi egunetan, era guztietako ikuskizun eta ekintzez gozatzeko aukera izango dugu elgoibartarrok. Joan zen urteko joerari jarraituz ikuskizun eszenikoak indartzearen apustuari eutsi dio Udalak. Hala, San Bartolome bezpera gauean *Terapia* ikuskizuna eskainiko du Markeliñe antzerki taldeak, Kalegoen plazan. Era berean, Chongoing Circus akrobazia taldearen bisita jasoko dugu San Bartolome egunean, 23:00etan. Txinako Herri Errepublikako akrobazia talde zaharrena da, 1951n sortu baitzuten, akrobaziaren, magiaren, arte martzialen eta zirkuaren esparruan ziharduten zortzi konpainia batu ostean.

## Barrakak

Umeentzako barrakak Lekueder parkean eta San Frantzisko iturriaren gaineko aldean egongo dira. Txikienentzako tiobibo eta autotxokeak jarriko dituzte Lekuederren eta koskortuagoentzako barrakak egongo dira beste gunean. Prezioak “popularrak” izango direla ohartarazi du Blanca Salegi Kultura teknikariak. “Txartel bakoitzak 1,5 euroko kostua izango du, eta euro batekoa Umeen egunean”.



## Tabernak ixteko ordutegia

Tabernek eta Maalako txosnek izango dituzten ordutegi mugen berri ere eman du Rikardo Garate Hirigintza zinegotziak. “Tabernariei 5:30ean jarri diegu ixteko muga, kaleetako garbiketa lanak egiteko aukera izan dezagun. Maalako txosnek, berriz, 4:00etan itzali beharko dute musika. Bide batez, euren kolaborazioa eskatu nahi nuke jarri ditugun ordutegiak bete ahal izateko”.

## Trenen ordutegi berezia

Euskotrenek tren ordutegi berezia jarriko du abuztuaren 25ean, zapatuan. Hala, Debara eta Ermura orduro irtengo dira trenak gauez, eta bi orduro Bilborantz.

TXIKI EGUNEKO MENU BEREZIA
JUBILATUEN BILTOKIAN
- Zizka-mizka hotzak: urdaiazpikoa, otarrainxkak eta zainzuriak.
- Isats gisatua patatekin edo bakailaoa piperradarekin.
- Azkenburukoa: izozkia.
- Kafea.
- Ogia, ardoa eta ura.
25€
EDONORENTZAT!
Oilaskoak eramateko, enkarguz
Enkarguak egiteko: 943 740 281

EROSKI bidaiak
Ondo pasa jaietan!
San Bartolome, 11 · 20870 ELGOIBAR
Tel. 943 744 656 Fax 943 742 273
v0610@eroski.es www.viajeseroski.es

ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK
Jai zoriontsuak!
Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.
Iñaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351
Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



140.000 € tik
aurrerako 22 etxebizitza salgai, erdigunetik gertu.
Azalera modu ugaritan antolatzeko aukera, 57 eta 133m2 artean.
aukeratu zeurea!
MARRADUN GARAJEAK SALGAI
ELGOIBAR
Santa Klara Auzoa
Izena emandako ordenean etxea zurea izango da, zozketarik gabe...
zatoz zure etxea aukeratzera!
ELKOBI
Informazioa
San Bartolomé, 3 - Elgoibar
943031168
AST>OST 10:30>14:00,17:00>20:30
LAR 10:30>14:00
elgoibar@evolvisgestion.com




HERRI ESKOLA
GUZTIONA
HERRIARENA
ZEURIA
ONDO PASA
SAN BARTOLOME
JAIXAK!!!




DARIO bus
Jai zoriontsuak!
ESSER N-N1 Industrialdea
20850 MENDARO (Gipuzkoa)
Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 677
943 203 442
607 410 411
www.dariobus.com
clientes@dariobus.com

# Kultur eskaintza oparoa

**Antzerkia eta musika izango dituzte herritarrek aukeran aurten ere. Hona hemen, puntuz puntu sanbartolomeetako kultur eskaintzaren gaineko jakingarri nagusiak.**

### Markeliñe, 'Terapia' ikuskizuna

**Abuztuaren 23an, 23:00etan, Kalegoen plazan.**

Ordubete inguruko ikuskizuna da *Terapia*, eta ondoan izateko aukeratu dugun bikotekidearen inguruko hausnarketa proposatzen digu. Maitasunetik maitasun ezera pauso bat dagoela adierazten digute antzezlanean. Keinu eta pasioz betetako obra da, "antzezlan terapeutikoa", gure "ahultasun emozionalaren ispilu garbia". Idilioa eta amodioa amorru biziz bilatzen dugun garaian bizi garela nabarmentzen dute, baina horrek berak zein ahul egiten gaituen erakusten dute. Emozioaren labar eta amildegien gainetik hegan egiten erakusten duen terapia proposatzen digu Markeliñe antzerki tarlde zornotzarrak.



### Trapu Zaharra, 'Ametsetan bizi' ikuskizuna

**Abuztuaren 24an, 19:00etan, Kalebarren plazan.**

Bi aktoreren istorioa da. Krisi egoera delaeta, kalera atera beharra dute bi aktoreok euren lana ezagutarazi eta kontratatuko dituen enpresaren baten bila. Horretarako errepertorio zabal bat erakutsiko digute: urtebetetze ospakizunetatik hasi eta ezkontzear daudenen festetaraino. Ilusioz gainezka dauden bi aktore dira, baina euren arteko erlazio "zailak" asko zailduko die helburua lortzea. Izan ere, aktore bakoitza mundu jakin batetik dator: bata, kulebroi itxurako telesailetan zaildutakoa da, eta bestea, antzerki "erradikaletan", eta horrek asko korapilatuko du euren arteko harremana. Santi Ugaldek zuzendutako antzezlana da, 60 bat minutukoa, eta Mikel Laskurain eta Javi Barandiaranek emango diete bizia obrako bi pertsonaiei.



### 'Chongqing circus' zirku ikuskizuna

**Abuztuaren 24an, 23:00etan, Kalegoen plazan.**

Chongquingeko Udalaren akrobazia konpainia, Txinako zaharrena, 1951n sortu zuten akrobaziaren, magiaren, arte martzialen eta zirkuaren arloko zortzi konpainia elkartu ostean. Azken urteotan, konpainiak hainbat ikuskizun sortu ditu: hala nola, meteoritoak, bowl-ak oreka-taularen gainean, oinekin egindako malabarismoak, eta airea inguratzen duten birak. Horiei esker, Chongquingeko konpainiak hainbat domina eta sari eskuratu ditu. Konpainiaren azken arrakasta *Mulan* ikuskizun handia izan da. Bertan, aita zaharraren ordez, armadara joateko mutil jantzi behar izan zen neskato baten istorioa kontatzen dute. Ikuskizun horretan, zirkuko estilo guztiak, arte martzialak eta dantza uztartzen dituzte. Gaur egun, konpainian izen handiko artistek parte hartzen dute: esaterako, Yang Shaoyuan, Quan Liandi, Tianchong y Wang Yafei.



### Oihan Vega, DJ-a

**Abuztuaren 25ean, 23:00etan, Kalegoen plazan.**

Oihan Vega telebistako aurkezle eta irratiko esatari ezaguna Euskal Herriko DJ erreferente bilakatu da azken urteotan. Ehun herri baino gehiagotik igaro da 'diskofesta' ospetsuarekin. Euskal Telebistak eta Euskadi Gazteak sustatuta, Euskal Herriko disko festarik handienetan izan da. Donostian, Aste Nagusian, Zurriolako hondartzan 3.000tik gora pertsona batu zituen, esate baterako, eta Kilometroak eta Ibilaldia jaialdietan, 8.000 pertsona baino gehiago. Telebistan lan egiteagatik duen ospeagatik batetik, eta Gaztea irratian aurkezten duen saio arrakastatsuagatik, bestetik, plaza guztiak goraino betetzen ditu, eta festa giroa bermatuta dago Oihan Vegaren diskofestetan.



## TURUTARRA FANFARREA

**Abuztuaren 27an, 19:00etan**

1980. urtean sortu zuen Bilboko Zorroza auzoko koadrila batek, baina bi urte beranduagora arte ez ziren hasi herriz herri. Fanfarrea bera sortu zutenen esanetan, proiektua sortu zutenean ez ziren oso kontziente talde hark izan zezakeen indarraz, baina poliki-poliki nazioarteko jaialdietan parte hartzen hasi ziren, eta horrek ospe eta entzute handia eman zien. 90eko hamarkadan oihartzun handia hartu zuten, eta ordutik Euskal Herrian alderik alde dabiltza. Kanpoan ere makina bat ibili egin dituzte, eta jaialdi handietan parte hartu dute, Nizako inauterietan, esate baterako.

## DRINDOTS TALDEAREKIN DANTZALDIA

**Abuztuaren 27an, 22:30ean, Kalegoen plazan.**

25 urte baino gehiago duen talde lazkaoarra da. 1981. urtean hamabost urte zeukatenean Josune Albisu, Jon Urdangarin, Mikel Agirrezabala eta Alberto Pelaezek Arrano Beltza taldea osatu zuten. Hortik aurrera aldaketa ugari izan dira taldean. Josunek eta Albertok utzi egin zuten. Egun, Urdangarinek eta Agirrezabalak jarraitzen dute taldean, Igor Oiarbide, Iker Piris eta Joxean Floresekin batera. Izen aldaketa esanguratsua izan zen, 80. hamarkadaren bukaeran. 1992. urtean beraien lehenbiziko diskoa "Maritxu" grabatu zuten, eta arrakasta handia lortu zuten horrekin. Geroago "Made in Plaza", "Delilah" eta "Ebamirentxu" bertsioa kaleratu zituzten. Drindots taldeak 1.400 kontzertu baino gehiago eman ditu sortu zutenetik hona.



## STANDA BANDA

**Abuztuaren 28an, 20:00ean, Kalegoen plazan.**

Musika talde xelebre hau munduan zehar dabil bueltaka, toki batetik bestera, euren musika eta kantak umeei eskaintzen. Kolorez beteriko makina garraiatzaile miragarri batetik pertsonaia harrigarriak azaltzen dira, ustekabean, ikuskizun zirikatzaileak sortuz. Jolasez eta mugimenduz beteriko gure lan honetan, umeen parte-hartzea da bilatzen dute. Horixe da, hain justu ere, ikuskizun honen ezaugarrietako bat.

## LAKET

**Abuztuaren 27an, 19:00etan, Gune Askean.**

2008an sortu zuen taldea boskote honek, baina horrek ez du esan nahi berriak direnik honetan. Denak ere aurrez beste talde batzuetan ibiliak baitira: tartean, Etzakit, Mal de Ojo edo Esne Bezala bezalako taldeetan jardundakoak dira. Iaz bezala, eurak izango dira aurten ere Txiki eguneko erromerian herritarrak dantzan jarriko dituztenak.



## EL COLUMPIO ASESINO

**Abuztuaren 31n, 23:00etan, Kalegoen plazan.**

El Columpio Asesino iruñearra talde singularra da oso, soinu ezberdinen bila dabilenarentzat aproposa. Elektronika, pop eta rock doinuak egiten dituzte, eta oihartzun handia hartu dute. BBK Live jaialdian jotzetik datoz Elgoibarrera.





## DJ BULL

**Irailaren 1ean, Gune askean.**

Tolosako Raku tabernan hasi zen musika jartzen 16 bat urte zituela, eta ordutik, plazaz plaza dabil. *Juzgado de Guardia* telesaileko pertsonaia bati zor dio Bull izena, eta bere ikuskizunetan euskal musika jartzen du gehienbat. Santanen harira BARRENI emandako elkarrizketan aitortu zuen ez dela house edo musika elektronikoaren zalea, eta hemen bertako musikaz gain, Manu Chao estiloko musika mestizoa gustatzen zaiola. Publikoaren arabera aukeratzen du zein musika jarri, hala ere: "Momentuan prestatzen dut saioa, abestiz abesti joaten naiz, eta jendearen eskaerak ere kontuan hartzen ditut"




NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA
ZELETA
BARAZKIAK
JAIAK ONDO PASA!
EUSKAL BASERRI
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
Ortutik mahaira!
Kalitatea bermatua!
• Landareen produkzioa
• Laborantza kontrola
• Eskuz eginiko aukeraketa
• Banaketa
• Bertako produktuetan erantzunik gertukoena
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !
Ondo pasa jaiak!!
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
5 EGUNEKO TEORIKAKO IKASTARO TRINKOAK
- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak
LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

LAGUNAK
colchonería textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20
TEL.: 943 744 457
ELGOIBAR
www.textillagunak.com

**ATSEDENEAN ETA ETXE-GERIATRIAN ADITUAK**

# MERKEALDIAK!

Ondo pasa jaiak!

**Erosi BEZa igo aurretik!**

**Koltxoiak: %10 eta %25 arteko deskontuak**

**Deskontu bereziak erakusleihoko koltxoietan**

TEMPUR · OLDSAN · terxy · Oihana Ohe geriatrikoak · KEYTON Masajedun besaulkiak

---

# Caramel Goxokiak



San Frantzisko Kalea, 44

***Etxeko postreak egiten ditugu enkarguz: sagar tarta, gazta tarta, ijito-beso bizkotxoa, kesadak eta mota guztietako bizkotxoak.***

***Zatoz Caramelera eta goza ezazu txutxeez eta krispeta egin berriez!***

--- Goxokiak
--- Jostailuak
--- Opilak
--- Izozkiak
--- Tarta Izoztuak
--- Etxeko postreak, enkarguz
--- Urtebetetze ospakizunetarako goxoki zorroak prestatzen ditugu



Ondo pasa jaiak!


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
MANU LEIZABE LOYOLA
TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoa
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54


EA
Ondo pasa sanbartolomeetan!


API
Burtsa informatikoa
GABILONDO
317 api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API
Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
Jai zoriontsuak denoi
San Frantzisko 51, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 744 467




Aitziber Dominguezek irabazi du sanbartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa, eta 700 euroko saria eskuratu du. Guztira, hamahiru lagunek hartu dute parte. Umeen lehiaketan, hamar lagunek parte hartu dute, eta hauek izan dira irabazleak: Nora Bastida, Mikel Vallejo, Ana Zubiaurre, Maria Ruiz de Gauna, Aritz Vallejo, Alex Roldan.

★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Maria Urizar
- Ileapaindegia
- Solariuma
Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar
mariaileapaindegia@hotmail.com

Imprenta Arrillaga
Ondo pasa Jaiak!
Inprimaketa: Offset Digitalean
Ezkontza gonbidapenak
Hileta origarriak
Bisita txartelak
Kartelak - etiketak
e.a.
Fotokopiak
Koloretan
Txuri-beltzean
Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87
e-posta: arrillagasl@euskalnet.net

USATORRE
Taberna
Jai zoriontsuak igaro!

AGURTZANE c.b.
ileapaindegia
Fotodepilazioa egiten dugu
ONDO PASA JAIAK!
Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

NORFO S.L.
Ondo pasa jaiak!
• ELKARTEEN ALDAKUNTZA, ELKARTZEA ETA ERAKETA.
• LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
• ALOKATZE KONTRATUAK
• JUBILAZIOA (Pentsioak)
PM Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23





## ABUZTUAK 22, *eguaztena*

**18:00 ELGOIBARKO HIRIA FUTBOL TXAPELKETA**
CD Elgoibarrek antolatuta, CD Elgoibarrek eta Ondarroako Aurrerak jokatuko dute Mintxetan.

**18:30 ARGAZKI ERAKUSKETA**
Kirol argazkien lehiaketako lanen erakusketa. Kultur Etxean

**19:00 KARTEL LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kultur Etxean.

# San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, *eguena*

**9:00 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA**
Elite mailako amateurrentzat (19-23 urte). Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Irteera: Kalegoen plazan. Helmuga: Santa Klaran, 12:00etan. Jarraian, sari banaketa, Kalegoen plazan.

**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**
Udaletxean Ikurrina jasoko dute jaiak hasteko, Alkorta enpresako eta Ikastolako kideek botako dute txupinazoa.

**Ondoren,** Mauxitxa txarangaren kalejira.





**16:00-19:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Sigman).

**16:30 SORPRESA**
Zaharren biltokian.

**17:00-18:30 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.



**19:00 KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin.

**20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA**
Udal Txistulari Taldeak lagunduta, Udalbatza San Bartolome parrokiara joango da, alkate soinua joaz.

**23:00 ANTZERKIA**
*Terapia* ikuskizuna, Markeliñe antzerki taldearekin. Kalegoen plazan.

BIAK
ileapaindegia
San Inazio, 4
Tel.: 943 742 725
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Jai zoriontsuak!!

PINTURAK eta KONPONKETAK
Pedro Pérez Beristain
Xtollon Kalea 2 solva 3
943 74 36 52 - 639 76 09 19
FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXEKO KONPONKETAK

ZAZPI INFORMATIKA
Bernardo Ezenarro, 15 behea
Tel. / Faxa: 943 74 37 87
20870 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)
ONDO PASA JAIAK!

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570

LIRAIN ESTETIKA
ESTETIKAKO ZERBITZU GUZTIAK!
ASTELEHENETAN DIETISTA KONTSULTA!
San Inazio, 4
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
618 259 343
lirainestetika@hotmail.es

ELENA
ileapaindegia
Jai zoriontsuak!
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189




# San Bartolome Eguna

## ABUZTUAK 24, *barixakua*

**9:00 DIANA**
Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA**

**10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA**



**10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA**
Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte.

**Jarraian, SOKADANTZA** Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin, Kalegoen plazan.







**Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Kalegoen plazan.

**16:00-20:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Kalegoen plazan eta Aita Agirre plazan (euria egiten badu Sigman).

**17:30-19:00 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako frontoian.

**19:00 ANTZERKIA**
*Ametsetan bizi* ikuskizuna Trapu Zaharraren eskutik, Kalebarren Plazan.

**23:00 ZIRKU IKUSKIZUNA**
*Chongqing circus* akrobazia eta zirku ikuskizun txinatarra. Kalegoen plazan.

TANTAKA TABERNA
ENTSALADAK
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK
RAZIOAK
Ondo pasa sanbartolomeetan!
Aita Agirre, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 030 736

HAIR'S
ILEAPAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 531 279
Astearteetan jubilatuen eguna:
Orraztu 8 €
Garbitu, moztu eta orraztu 16 €
Ondo pasau jaixak!

PREZISIO MUNDU BAT
MYL
myl precision spindles
& spindle repairs service
Talleres MYL, S.A.U
Ondo pasa jaietan!
Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · http:www.myl.es



















# Baserritarren eguna

## ABUZTUAK 25, *zapatua*

**9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGIETORRIA**
Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Bandak harrera egingo diete Kalebarren Plazan.

**Jarraian, BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**10:00 EUSKADIKO LIMOUSIN GANADUAREN TXAPELKETA**
Aita Agirre plazan.

**11:00 SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTATZEA**
Kalegoen plazan, Sallobente elkarteak antolatuta.

**11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA**
Kalebarren Plazan, Kalamua elkarteak antolatuta.

**12:00 KALEJIRA**
Elgoibarko Kale kantariek giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin.









**13:30 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kalegoen plazan.

**14:00 SARI BANAKETA**
Gazta lehiaketako sariak banatuko dituzte. Kalebarren Plazan.

**17:00 BALTZOLA ANAIAK TRIKITILARIEN KALEJIRA**

**18:00 KALEJIRA**
Elgoibarko kale kantariek alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

**18:00 MINTXETA MEMORIALA**
San Bartolome jaietako harri-jasotze txapelketa. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Ikastolan). Antolatzailea: Kalamua elkartea.

**ONDOREN GANADU LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kalegoen plazan.

**23:00 DISKO FESTA**
Oihan Vega DJarekin, Kalegoen plazan.

IRIONDO KIROLAK
MENDI ETA KALEKO KIROL MODA
San Frantzisko, 37 Tel.:943 74 09 56
Ondo pasa jaiak!

Mausitxa
Artzaiaren gazta
Ondo pasa jaiak!
Mausitxa baserria,
San Antolin auzoa
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 626 957 900

ARAMBURU
BITXIDENDA
Ondo pasa jaiak!
San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

ILEAPAINDEGIA-EDERGINTZA
DONNA
- Manikura/Pedikura
- Masajeak
- Aurpegiko larruazal garbiketa
- Makillajea
- Keratinazko leuntzailea
- Laser diodoa
- Depilazioa argizari beroa eta epelarekin
- Depilazio elektriko
- Gorputz eta aurpegi tratamenduak
- Dutxadun solariuma
Pedro Muguruza etorbidea, 13 - Elgoibar - Tel.: 943 744 388

TELLABIDE
ITURGINTZA
Ondo pasa jaiak!
Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak
Mendaron zein Elgoibarren ematen dugu zerbitzua
Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062

URDAITEGIA - JANARIDENDA
DORI
Ermuaria K. 29 2K. Tel. 943 74 77 92
ELGOIBAR
Ondo pasa sanbartolomeetan!

ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA




TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabaziko dituzu.

Puntuen katalogoa

- Doakoa da.
- Bankuz aldatu gabe.
- Bildu puntuak erregaluekin trukatzeko.
- Deskontuak urteko hilabete jakin batzuetan.

| IZEN KOMERTZIALA | TELEFONOAK |
|---|---|
| • ALIRE ESTETIKA | 943 531 636 |
| • ARANBURU BITXIDENDA | 943 742 635 |
| • ARAURI LURRINDEGIA | 943 741 789 |
| • AZKUE ARGAZKI DENDA | 943 740 848 |
| • BURGOA SOMOZA ARRAINDEGIA-PESCADERIA | 943 748 130 |
| • CASA ASTIGARRAGA | 943 743 268 |
| • DORI URDAITEGIA | 943 741 192 |
| • ECENARRO MERZERIA | 943 742 619 |
| • FARMA APRAIZ | 943 743 608 |
| • FERPI MODAK | 943 740 815 |
| • G & M JANTZIDENDA | 943 033 476 |
| • GARATE JANTZI-DENDA | 943 741 129 |
| • GARBIÑE ESTETIKA | 943 743 132 |
| • GOIARA DROGERIA | 943 741 133 |
| • HAZTEN | 943 747 347 |
| • IBAMAR ITURGINTZA | 943 531 847 |
| • IKUS OPTIKA | 943 743 734 |
| • IPINTZA MARGOAK S.L. | 943 740 440 |
| • IRIONDO ALTZARIAK | 943 741 234 |
| • IRIONDO KIROLAK | 943 740 956 |
| • KALA LORADENDA | 943 744 516 |
| • KARKIZANO | 943 740 549 |
| • LANBROA | 943 740 806 |
| • LANDA HARATEGIA | 943 742 758 |
| • LEIGAR ELEKTRAGAILUAK | 943 740 054 |
| • LETE | 943 744 199 |
| • LUVIK OINETAKOAK | 943 744 345 |
| • MG BURDINDEGIA | 943 740 831 |
| • MURUAMENDIARAZ | 943 740 345 |
| • OINEZ UMEEN ZAPATA DENDA | 943 031 101 |
| • ONGI ITURGINTZA | 943 254 522 |
| • ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA | 943 743 662 |
| • OSORO OINETAKOAK | 943 740 235 |
| • PATXI HARATEGIA | 943 743 504 |
| • PITXINTXU | 943 743 206 |
| • SARA JANTZIDENDA | 943 743 655 |
| • SKANDALO KORTSE-DENDA LENTZERIA | 943 743 595 |
| • SUMOFIC | 943 744 102 |
| • UZURI OPTIKA | 943 740 359 |
| • ZAZPI INFORMATIKA | 943 743 787 |
| • ZELETA BARAZKIAK | 943 743 022 |
| • ZIUR | 943 531 206 |

*Diru laguntzailea:*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA



# Jubilatuen eguna

## ABUZTUAK 26, *domeka*

**8:00 IDIARENA**
Elgoibarko dultzaineroekin.

**Jarraian, SOKAMUTURRA**
Arnoren zezenekin. King-Kong-etik.

**12:00 HEGALUZE PARRILLADA**
Eusko Labeldun hegaluzea, parrillan. Kalebarren Plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Danborrada Atabal elkartea.

**12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA**
San Bartolome parrokian.

**14:30 JUBILATUEN BAZKARIA**
Olaizaga kiroldegian, Eguren orkestrak girotuta.

**17:30 ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA**
Elgoibarko dultzaineroekin.

**19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA**
Haritz dantza taldeak antolatuta,16 urtetik gorakoentzako. Kalegoen plazan.



# Txiki Eguna

## ABUZTUAK 27, *astelehena*



**7:30 DIANA**
Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA,** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA**
Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK**
Aita Agirre plazan.

**Ordu berean, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

**17:00 TXIKI EGUNEKO HERRI-BAZKARIA**
Sigman. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra kultur elkartea.

**18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK**
Ikastolako Frontoian.

**18:30 TOREATZAILE PAILAZOAK**
Aita Agirre plazan.

**19:00 KALEJIRA**
Turutarra fanfarrearekin.

**22:30 DANTZALDIA**
Drindots taldearekin, Kalegoen plazan.











# Umeen eguna

## ABUZTUAK 28, *martitzena*



**10:30 HAURRENTZAKO ENTZIERROA**
King-Kongetik Aita Agirre plazaraino.

**10:45 ZEZENTXOAK ETA PONIAK**
Aita Agirre plazan.

**11:30 - 13:45 AIRE LIBREKO MARRAZKI LEHIAKETA**
Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

**14:00 HAURRENTZAKO HERRI BAZKARIA**
Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea. 7 urtetik 14ra artekoentzat. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du, eta freskagarriak eta postrea banatuko dituzte.

**14:30 HAURRENTZAKO PARKEA**
Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Sigman).

**18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA**
Kalegoen plazan.

**Jarraian, ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZENZIKLETEN KALEJIRA**
Mauxitxa Txarangarekin batera. Haurrak mozorrotuta joateko eskatu dute.

**20:00 DANTZALDIA**
Standa Banda taldearekin, Kalegoen plazan.

## ABUZTUAK 30, *eguena*

**19:00 ESKUBALOI PARTIDA**
Alcorta Forging Group (lehen nazional maila) eta Errenteriako Ereintza (zilarrezko ohorezko maila) taldeen arteko partida, kiroldegian.

# Gazteen Eguna

## ABUZTUAK 31, *barixakua*

**8:00 DIANA**
Herriko dultzaineroekin.

**Ondoren, SOKAMUTURRA** Arnoren zezenekin.

**Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA**
Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

**12:30 GOITIBEHERAK**
Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea. Izena ematea irteeran bertan. 14 urtetik 18ra artekoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.

**Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA**

**17:00-19:30 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN BOLAZTATUEKIN**
Aita Agirre plazan. Antolatzailea Zuhaitz aisialdi Taldea.

**23:00 KONTZERTUA**
El columpio asesino taldea. Teloneroak, Moby Dolls. Kalegoen plazan.

**24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA**
Alkohol tasaren frogak egiteko karpa, Maalan



ASESORIA GOAR
- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak
San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoriagoar@euskaltel.net

Txintxo
INMOBILIARIA
San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 742 674

Tel.: 943 741 011
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Jai zoriontsuak!
- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

DEBAPE
inprimategia
komunikazio grafikoa
ONDO PASA JAIAK!
Liburuxka, publizitate, papergintza komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen, etab..-en diseinu eta inprimaketa.
Inprimaketa digitala
SIGMA Industrialdea • Xixilion 2 - 2. solairua, 7. lokala
Tel.: 943 74 40 58 • Faxa: 943 74 41 78
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
debape@debape.com • www.debape.com

# SAN ANTOLIN JAIAK 2012

## ABUZTUAK 30, eguena

ARBOLA JARTZEA



## ABUZTUAK 31, barixakua

19:00 TXUPINAZOA
ONDOREN TXAPEL JAURTIKETA LEHIAKETA
SEGIDAN OLIBA HEZURREN JAURTIKETA LEHIAKETA
20:00 TRIKI BERTSO KALEJIRA
21:00 AURRESKUA
JARRAIAN BERTSO AFARIA
Trikitilariak: Ansorregi eta Larrañaga
Bertsolariak: Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi
Afarirako txartelak, Usatorre tabernan daude salgai, 28 euroan.
GOIZALDEAN TXOKOLATADA





## IRAILAK 1, zapatua

17:00 MUS TXAPELKETA
ORDU BEREAN ARRIAGAKO LASTERKETA HERRIKOIA
Izenematea 16:30etik 17:00etara.
18:30 PATATA TORTILLA LEHIAKETA
ORDU BEREAN TIRAGOMA LEHIAKETA
SEGIGAN UMEENTZAKO JOLASAK
21:00 AFARIA
Marmitakoa eta postrea. Edateko, ura, ardoa, eta sagardoa.
JARRAIAN GAZTAREN PISUA ASMATZEA
ONDOREN ERROMERIA
Laja eta Mikelekin.
Erromerian dantza txapelketa egingo dute.
1:00 ERRIFAREN ZOZKETA
1. saria: Kanariar uharteetara bidaia bi lagunentzat.
2. saria: Janariz eta edariz beteriko karretila.
GOIZALDEAN SORPRESA



## IRAILAK 2, domeka
### San Antolin Eguna

11:00 MEZA ETA PROZESIOA
ONDOREN SALDA ETA TXORIZOA BANATUKO DITUZTE
EGUERDIAN BAZKARIA
Kaxeta elkartean.



IBA RRE NEA
okindegia
1890tik

Ondo pasa sanbartolomeetan!!

ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK

San Bartolome 26
Tel.: 680 724 060

PNEUMAX
PNEUMAX, S.A.

AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGAIAK

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 - 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 76
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es

MIEMBRO DE
aiftop
Oleohidráulica y neumática

IQNet

AENOR
ER






ITURRI TABERNA

PINTXO HOTZAK ETA BEROAK
RABAK,
RAZIOAK,
OGITARTEKOAK

Ondo pasa jaiak!

Foruen plaza, 5
Tel.: 943 257 448

# MOBY DOLLS



Xabi Azkarate, Alberto Iriondo, Juan Carlos Martin eta Mikel Armendia, Rocio Larrañaga besoetan dutela.

**Rocio Larrañaga (abeslaria), Xabi Azkarate (perkusioa), Juan Carlos Martin eta Ion Rodriguez (gitarrak), Alberto Iriondo (teklatua eta pianoa) eta Mikel Armendia (baxua eta saxua). Horiek osatzen dute Moby Dolls taldea, eta Gazteen Egunean egingo dute debuta jendaurrean, Kalegoen plazan. Herrian eta herritarren aurrean joteko irrikitan daude, eta dudarik gabe, daukaten onena ematera irtengo dira eszenatokira.**

## "Estreinako kontzertua gure herrian eskaintzea mundiala da"

**Noiz eta nola sortu zenuten Moby Dolls taldea?**

Gauza asko bezala, nahi gabe eta pixkanaka sortu genuen. Juan Carlosek, gitarristak, Rocio ezagutzen zuen Azkoitiko musika eskolatik, eta Rociok abestien zirriborro batzuk bazeuzkanez, hirurok [Alberto] hasi ginen elkarrekin joten, baina asmo zehatzik gabe. Pixkanaka hasi ginen moldaketak egiten, abesti berriak sortzen, eta esku artean proiektu bat geneukala konturatu ginen. Horri forma ematen joan ginen: perkusionista batekin harremanetan jarri ginen lehenengo, (Xabi Azkarate) gero baxujolea topatu genuen (Mikel Armendia), saxofoia gaineratu genuen ondoren (Aitor Nova), beste gitarrista bat gero (Ion Rodriguez)… Pausoak pixkanaka eman ditugu, oso poliki.

**San Bartolome jaietan egingo duzue debuta Elgoibarren. Zer sentitzen duzue?**

Sekulako gogoa daukagu, eta irrikitan gaude. Estreinako kontzertua gure herrian izatea mundiala da! Ea zuzeneko ekitaldian lortzen dugun gure soinua eta gure nortasuna transmititzea. Herritarren aurrean jotzeak ez gaitu urduri jartzen, baina tentsio izugarria sortzen digu. Beti esaten da norberaren herrian jotzeak ardura handiagoa dela, bereziki, sortu diren espektatibak bete eta publikoa gustura geratzea nahi dugulako.

**Herrian ala kanpoan nahiago duzue, hala ere?**

Taldea sortzen eta hazten ari den momentu honetan herrian jo nahi genuen. Taldekide batzuk ez dira elgoibartarrak, baina esentzian, taldea Elgoibarren jaio eta hazi da. Entseguak Elgoibarren egiten ditugu, Elgoibarren elkartzen gara edozein gauzatarako. Aprobetxatu nahi dugu eskerrak emateko

Musika Eskolako zuzendaritzari eta, bereziki, Mari Jose Zubiaurreri, gurekin izan duten jarreragatik. Asko lagundu digute azpiegitura kontuetan, eta talde baten hasieran oso garrantzitsua da hori.

**Nondik dator Moby Dolls izena?**

Zenbat barre egin ote dugu izenak asmatzen! Pena eman zigun taldeari izena jartzeak, katxondeorako arrazoi bat gutxiago geratu zitzaigulako. Ion Rodriguez etorri zitzaigun esaten taldearentzat izena aurkitu zuela, eta istorio bat kontatzen hasi zen: aspaldi batean nonbaiten irakurri zuela orka bat harrapatu zutela, eta urte askoan akuarium batean egon ondoren, hainbat aldiz saiatu zirela askatzen, baina alferrik izan zela, hantxe hil zelako. Hori izan zen akuarium batean egon zen lehenengo orka. Orkaren izena zen Moby Doll. Izena eta istorioa politak ziren, elkarri begiratu genion, eta inork ez zuenez ezezkorik esan, horretan geratu zen.

**Zein estilotako musika egiten duzue?**

Ez daukagu oso argi zein den gure etiketa. Musika freskoa eta landua da, hori uste dugu, behintzat. Buelta asko eman dizkiogu abesti bakoitzari, eta gure ustez, denak ezberdinak dira. Bakoitzak bere nortasuna dauka: batzuk lasaiak, beste batzuk erritmikoagoak, beste batzuk sakonak… Onena izango da gure kontzertua entzutera etortzea eta bakoitzak ateratzeko bere ondorioak.

**Egiten duzuen musika estiloa eta zuek entzun edo gustuko duzuen estiloa berdina da?**

Bai eta ez. Dudarik gabe, egiten dugun musika gustatzen zaigu, baina hori guztia momentuaren araberakoa da. Hau da, sortzen den momentuak eta inguruko faktoreek (emozionalak, teknikoak…) eragiten dute. Gure eskaintza 360 gradukoa da, hau da, ez dago entzuten ez dugun estilorik. Gure iturriak anitzak dira: klasikoa, rocka, popa, folka… Uste dugu gure musikan hori guztia islatzen dela.

**Ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz abesten duzue. Zergatik hiru hizkuntzatan?**

Zaila da erantzutea. Giro atsegina sortzea da gure helburua. Bi abesti euskaraz egin ditugu eta bat gaztelaniaz. Rociok egin ditu letra gehienak, eta abesti gehienak ingelesez izatea *momentuaren* emaitza izan da. Halaxe irten zaizkigu, baina baliteke hurrengo denak euskaraz edo gazteleraz izatea. Dena da posible.



**“Eszenatoki gainean sentitzen dena ezin da beste ezerekin konparatu”**

**Zein hizkuntzatan sentitzen zarete gusturago?**

Oinarri musikala kalitatezkoa bada, edozein hizkuntzatan. Bueno, aitortu behar dugu taldekide guztion ingeles maila ez dela berdina, baina zeozer ulertzen ez dugunean Rociok argitzen digu, eta listo. Ingelesa agian zuzenagoa da, euskara poetikoagoa, eta gaztelania, akaso, gehiago kostatuko zaigu.

**Posible da gaur egun musikaz bizitzea?**

Pribilegiatu batzuk besterik ez dute lortu musikaz bizitzea. Ia ezinezkoa da, ilusio utopikoa da. Zeozer sortzen duzunean mundu honetan lagatzeko egiten duzu, erakusteko, eta horrek bultzatu gaitu musika egitera.

**Kontzertuak eszenatoki gainean ala behean dituzue nahiago?**

Eszenatoki gainean sentitzen dena ezin da beste ezerekin konparatu. Hori bai, esaten da, ondo idazteko lehenik ondo irakurtzen ikasi behar dela, hau da, lehenik musika entzuten jakin behar da; jasotzea oso atsegina eta aberasgarria da. Gauza guztiak bezala, hartueman zikloa ezinbestekoa da.

**Besterik?**

Eskerrak ematea taldea aurrera ateratzen laguntzen ari diren guztiei. Eta herritarrei, kontzertua ikustera etorri daitezela! CDak Tantaka, Orbea, Jai-Alai eta Pitxintxun daude salgai.

**Ainhoa Andonegi**

## Erretratu zaharra





**1957**

Erretratu zahar hau 'Talaik' ekarri du BARRENEko erredakziora. 1957ko Txiki Egunean ateratakoa da. Koadrilan ospatzen zituzten jaiak garai hartan ere, umore onean. Erretratu honetan kamiseta zuria jantzita ikusten ditugu gazte horiek, sonbrero eta guzti, festarako prest.

**Zutik, ezkerretik eskumara:** Jose Osoro, ezezaguna, Javier Rezola+, Antonio Aizpiri, Angel Mari Ibarluzea, Jesus Ansola, Alejandro Alvarez. **Eserita:** Javier Etxaniz, Jose Mari Etxeberria, Julian Etxeberria (†), Gerardo Uribe, Luis Fernando Astigarraga.

**1958**

Mertxe Ondarzak ekarri du erretratu hau BARRENEra. 1957-58 inguruko sanbartolomeetan ateratakoa da, Txiki Egunean. Garai hartan ohikoak ziren argazkilarien panelak, eta horietako baten aurrean atera zuen argazkia hirukote honek. Kalebarren plazan aterata dago erretratua, Kultur Etxe aurrean. Umeak zuriz jantzita ageri dira, dotore, zapi eta gerriko gorria soinean dutela. **Ezkerretik eskumara:** Mari Tere eta Jose Mari Etxaniz Alkorta eta Mertxe Ondarza.

# MERKATU PLAZA

## *Uste duzuna baino gehiago!*



**Arantxa** eta **Marian**
FRUTADENDA
Tel.: 943 744 440
Zure fruta eta barazkia dei batean etxean!



**M. Angeles**
FRUTADENDA
Tel.: 605 674 428
689 989 487
Zure etxera banatzen dugu!



**MARI** HARATEGIA
Tel.: 943 743 681



**Amaia** FRUTADENDA
Tel.: 635 704 712
Etxeko banaketa, fruta eta
barazki freskoak zure etxean!



**TXILARRE** BARAZKIAK
*Elikagai ekologikoak*
Tel.: 635 008 496
Salmeta zuzena!
Baserritik etxera!



**ZABALA** FRUTADENDA
Tel.: 943 744 295
Etxeko salmenta zuzena!



## OSTEGUNERO OTARRE BAT ZOZKETATUKO DUGU!

## *San Bartolome jai zoriontsuak!*

# Bezpera eguna, txirrindularitzaren eguna

## Lehendakari Txapelketarako puntuagarria izango da aurten ere Memorial Etxaniz proba

Urtero legez, Memorial Etxaniz txirrindulari lasterketa izango da San Bartolome bezperako ekitaldi nagusienetako bat. Juan Etxaniz Arrieta atleta elgoibartarraren omenez antolatzen den lasterketa da, Lehendakari Txapelketarako puntuagarria, eta Gure Bide elkarteak antolatzen du azkeneko 42 urtean. Ibilbidea azkeneko urteetako bera izango da, 115 kilometro guztira.

Elite mailako amateurrentzako lasterketa da (19-23 urte), eta urtero maila handiko tropela batu ohi da irteera puntuan. Lehendakari Txapelketarako azkeneko proba puntuagarrietako bat izanda, txirrindulariak sasoirik onenean etortzen dira urtero Elgoibarrera, eta lehia bizia izaten da. Memorial Etxanizeko podiumera igoten diren txirrindulariak begiz jo beharrekoak izaten dira, gainera, historiak erakutsi duelako lasterketa honetan gailentzen diren txirrindulariak punta-puntan ibili ohi direla gero profesionaletan. Elgoibarren irabazitakoak dira, esate baterako, Samuel Sanchez bera (1998 eta1999an), Luis Leon Sanchez (2002), David Etxeberria (1993), Alberto Leanizbarrutia (1982), Unai Osa (1995), eta Txomin Perurena handia ere (1965).



*Elgoibarko Izarrakon.*

Entzute handia hartu du proba honek, urteetan gauzak ondo egin diren seinale. “Ahalegina egiten dugu. Laguntza handia behar izaten dugu, eta laguntza diodanean ez naiz diruaz bakarrik ari. Motorretarako eta bide bazterrak zaintzeko-eta jende asko behar izaten da, eta burukomin batzuk izaten ditugu, baina gauzak ondo irteten direnean satisfazioa ere handia izaten da”, aitortu du Manu Conde Gure Bide Elkarteko Txirrindularitza batzordeko presidenteak. Txirrindularitzarako afizioa badago, baina, inguruotan, eta horrek eusten dio proiektu honi, Conderen esanetan.

Afizioa aipatuta, hala ere, bada gauza bitxi bat. Batetik, afizioa “bikaina” da, Jens Voight RadioShack taldeko txirrindulariak eskutitz batean jaso bezala, eta, bestetik, bizikleta hartuta errepidera irteten direnak ere gero eta gehiago dira. Aldiz, gutxi dira kirol gisa txirrindularitza aukeratzen duten gazteak. Elgoibarren, Lagun Taldea da txirrindularitzan saiatu nahi duten gaztetxoen erreferentzia, eta talde horrek egiten duen “lan ona” nabarmendu nahi izan du Condek: “Hartueman ona daukagu eurekin, eta horren adibidea da joan zen zapatuan elkarlanean antolatu genuen Azkarateko Igoera bera. Elgoibarren ba ei dira bi txirrindulari gazte kontuan hartzekoak, benjaminetan, eta ia ba aurrera egiten duten, behar dugu-eta ilusio bat”.

### Euskal Herriko Itzulia Elgoibarren

Txirrindularitzak batzen ditu, eta elkarlanean egiten dute lan, “gaur nire alde, eta bihar zure alde”. Datorren urtera begira ere badute erronka handi bat, Udalarekin elkarlanean. Izan ere, Elgoibartik abiatuko da 2013ko Euskal Herriko Itzulia apirilaren 1ean, Pazko Astelehenean, eta Elgoibarren bertan amaituko da. 150 kilometro inguruko etapa izango da eta lehen kilometroetatik gogor jardun beharko dute txirrindulariek, zazpi mendate jarri dizkietelako lehen etapa motz, baina bihurrian. Erronka handia dela aitortu du Manu Condek, baina ilusio handiz daude. “Eguraldiak laguntzen badigu, gainerako guztia ondo irtengo den konbentzimendua daukat, eta badakit burukomin handiak izango ditugula, baina mereziko duela. Euskal Herriko Itzulia proba garrantzitsua da, garrantzitsuena guretzat, eta herritik abiatzea handia da”, azaldu du horren harira.

### Juan Etxaniz

Juan Etxaniz Arrieta Santa Klara kalean jaio zen, jostunen familia batean. Lau neba-arrebetan bigarrena zen, punta-puntako atleta. 17 urterekin altuera-jauziko Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen. Kirolari aparta zen, eta txirrindularitzan adituek etorkizun oparoa iragarri zioten bizikletan hasi zenean. Gazte hil zen, baina. 1918ko gripe izurritean gaixotu eta 19 urterekin hil zen. Urte hartan, 40 milioi lagun hil ziren gripearekin mundu zabalean.

# Mintxeta eta Belaustegi harriak, harrijasotzaileen erronka berria

Bi harri irregular jaso beharko dituzte aurten Mintxeta memorialean parte hartzen dutenek



*Kalamua elkarteko kideak Aiastian, Belaustegi eta Mintxeta harriak aurrean dituztela.*

Bi harri irregular, Mintxeta eta Belaustegi harriak, jaso beharko dituzte aurten Mintxeta Memorialean parte hartuko duten harrijasotzaileek, Baserritarren egunean.

Iazko abuztuan zendu zen Pedro Mari Egaña *Mintxeta* harrijasotzailearen omenezkoa izango da aurrerantzean San Bartolomeetako harrijasotze txapelketa. Izenarena, baina, ez da berrikuntza bakarra, Kalamua elkarteak txapelketaren egitura ere aldatu baitu. Hala, orain arte baino harrijasotzaile gehiago aurkeztuko diren itxaropenarekin, adin muga kendu dute, [35 urtez azpiko harrijasotzaileentzako txapelketa zen-eta orain arte]. Aldaketa nabarmenena, baina, egin beharreko lanean datza. Harri erregularrekin beharrean bi harri irregularrekin egin beharko dituzte-eta jasoaldiak.

Hona hemen, harrijasotzaileen baimenarekin, txapelketako bi protagonista nagusien ezaugarriak: Aiastiako Belaustegi baserri inguruan topatu zuten izen bereko harriak 146 kiloko pisua du, eta Azkue auzoko Mintxeta baserriko harriak, berriz, 126 kilo.

Jabier Arriola Egi harrijasotzaile ohiak Belaustegi harria Mintxeta harria baino "latzagoa" dela uste du, eta hogei kilo gehiago izan arren, sorbaldan berdintzeko errazagoa izan daitekeela uste du. Hori ala den edo ez, baina, plazan ikusi beharko dela gaineratu du. Harri irregularrekin egiten diren txapelketak indarra hartzen ari direla dio Egik. "Ez dakit nobedadeagatik den ala horrelako txapelketan gutxiago sufritu behar delako, baina loraldian daude txapelketok". Elgoibarko txapelketa, hain justu, harri irregularretan ezagunenetarikoa den Igeldoko harriarekin egiten den txapelketa jokatu eta astebetera egingo da. Horrelako txapelketetan harria gordeta egoten da, eta beraz, harrijasotzaileek ez dute aukerarik aurrez harriarekin saioak egiteko. Mintxeta harria eta Belaustegi harria elkarren ondoan gordeta eduki dituzte uztailetik Aiastiako elkarteko biltegian. "Harriari nondik jo, nola eta nondik eutsi asmatzea izaten da zailena harri irregularrekin, aurrez saiakerarik egiteko aukerarik egoten ez denez, norberak bilatu behar dueta harri traketsa sorbaldan berdintzeko teknikarik aproposena", azaldu du Egik.

Harri bakoitzarekin bost minutuan altxaldi gehien egiten dituen harrijasotzaileak irabaziko du Mintxeta Memoriala, abuztuaren 25ean, 18:00etan hasita, Kalegoen plazan.

# Eguren orkestra, jubilatuen dantza laguna

## Hilaren 26ko jubilatuen bazkarian joko dute, kiroldegian

Pedro Sodupe *Gelatxo* (Agarre baserria, Elgoibar, 1928-2007) soinu jotzailea gaixotu zen urtean sortu zuten Eguren orkestra, urteetan harekin plazaz plaza, erromeriaz erromeria, ibilitako Enrike Eguren saxofoi jotzaileak eta Jose Perez Cortes bateria jotzaileak. Makina bat ibili egindakoak ziren biak ere, baina soinu jotzailerik gabe nekez osatu zitekeela taldea eta Angel Perez Sarasketa lagun eibartarra gonbidatu zuten taldera [soinua joten du]. Hamar bat urte joan dira ordutik, baina lehenengo urteko ilusio berarekin jarraitzen du hirukote honek. Irailetik maitza arte, domekero joten dute Elgoibarren, Jubilatuen Egoitzan, eta sanbartolomeetan ere, haien egunean (hilak 26) joko dute, kiroldegian egin ohi den jubilatuen bazkarian.

Habanerak, zortzikoak, tangoak, balsak, kunbiak, merengeak, guajirak, pasodobleak, cha-cha-cha eta saltsak... 400 piezatik gorako errepertorioa dute, eta 50 urtetik gorako eskarmentua plazan. Abilak dira jendea dantzan jartzen, nahiz eta aitortzen duten lehengo aldean orain asko kostatzen zaiola jendeari dantzan hastea. “Aire librean, behintzat, ez dago lehengo konturik. Hori bai, jubilatuetan demaseko dantzak egiten dituzte orain ere”, adierazi du horren harira Enrike Egurenek. Horrenbeste urtean plazaz plaza ibilita, errezeta ere topatu dute. “Bazkalostean, habanerak eta zortzikoak jotzen ditugu lehenengo, jendea kantuan jartzeko. Kantuan hasi eta berehala berotzen dira, eta gero dantzarako piezak joten ditugu, berriro hoztu aurretik”, azaldu du Angel Perezek.


*Eguren orkestra, iaz, kiroldegian egin zen jubilatuen bazkarian.*

### Erromerien gainbehera

Erromeriak asko jaitsi direla esan dute biek, aho batez, eta hein handi batean, diskoteken eta DJen zabalkundeari bota diote errua. Gelatxoren urte onetan, urtean 120 saio baino gehiago lotzen zituztela esan du Egurenek, eta udalerri askotan jaiek irauten zuten denbora osorako kontratatzen zituztela. “Etxarri-Aranatzera, esate baterako, zortzi egunerako maleta hartuta joaten nintzen ni. Berdin Amezketara ere, 40 bat urtean. Neu joaten nintzen hemendik, saxofoiarekin, eta herriko bertako soinu jotzaileekin joten nuen”, gogoratu du Egurenek. Lastur auzoan (Itziar) eta Arruan ere (Zestoa), makina bat urtean jotakoa da Enrike: “Ez dago han nik ezagutuko ez dudanik”. Eta ezagun du hori, iaz autoa konpontzera joan zenean gertatu zitzaiona ikusita: “Joan nintzen Azpeitira garajera, eta zein nintzen ikusi ninduenean, ez zidala kobratuko ez zidan esan ba! Ez nuela ordaindu beharrik, emaztea eta biak gure erromeria batean ezagutu zutelako elkar!”. Baietz dio buruarekin Angelek, halakoak sarri ikusitakoa dela adierazi nahian. “Zenbat bikote ikusi ote ditugu sortzen! Eta gaur ere bai, e! Ez ezazu pentsa hori lehengo kontua zenik bakarrik. Gaur ere bikote asko sortzen dira Jubilatuen Egoitzan, zuk uste baino gehiago”, dio.

Garai bateko kontuak ekarri dituzte gogora. Aiastian egunero izaten zen erromeria, eta hango kontuak ondo baino hobeto dakizki Angelek. Aiastiako erromerian ez zen dantzan egiten ez zuenik. Gogoan dauka behin mila lagun jarri zituztela dantzan. Halaxe, jakinarazi ei zion orain gutxi sasoi hartan kobroak egiten jarduten zuen gizonezko batek. Izan ere, garai hartan ordaindu egiten zen erromerietan dantza egiteagatik. “Gizonezkoei kobratzen zitzaien. Emakumeek libre zuten”, zehaztu du. Hemen bueltan, Lastur, Aiastia, eta Usartzako (Eibar) erromeriek entzute handia zutela gaineratu du, horren harira. Estatu Batuetako presidente John Fitzgerald Kennedy tiroz hil zuten egunean (1963 azaroaren 22an) ere, Santa Zezilia egun batez, hamazazpi soinu jotzaile elkartu ziren Usartzako erromerian, eta “dozenaka eta dozenaka dantzari”.

Gogoan iltzatuta dauka orduko irudia Angelek. “Hura zen gozamena!”. Musikariarentzako ere handia baita plaza dantzan ikustea. “Euskaldunak hotzak garela esaten da, baina ez. Euskalduna dantza zalea da. Hastea kostatzen zaio, baina musikarien lana da haiek giroan sartzea”, nabarmendu du. Horretarako badira bi pieza hutsik egiten ez dutenak, Angelen esanetan: Michel Teloren *Ai se eu te pego* kantuaren bertsioa da horietako bat, eta Halisco bestea. Eta sanbartolomeetan ere joko dituzte, jakina.


XAGUA
www.xaguaclub.com
San Frantzisko, 25 behea
Ondo pasa jaiak!


Ondo pasa jaietan!
ETXEKIT
12 urteko bermea
A. Arrillaga kalea z/g - Elgoibar - Tel. 943 74 43 47
Luis F. Beristain
korporazioa
xey
FORMA
banatzaile ofiziala


elgoibar ikastola
1962-2012
www.elgoibarikastola.eu
jai zoriontsuak!


SARIKI
METROLOGÍA
Ondo pasa jaiak!
SARIKAL
LABORATORIO
NEURKETA DIMENSIONALENTZAKO EKIPO HORNITZAILEA
KONTSULTORIA, PROIEKTU PERTSONALIZATUAK, FORMAKUNTZA
www.sariki.es www.sarikal.es
KALIBRAZIO LABORATEGIA ETA NEURKETA ZERBITZUAK


SUZIRIAK JOAN ETORRIKOA EGIN TA EKAR DITZALA
JUANMARI, ARNALDO, SEBAS TA IMANOL
etxera!
JAI BIHURRI
ON!
elgoibarko ezker abertzalea


MILAR
Ondo pasa jaiak!
BIRE

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea
Erakusketa/Faxa: 943 531 847
Floren Cid: 647 463 436
E-posta: *ibamar@euskalnet.net*

Jai zoriontsuak!



BEROGAILUA ◉ GASA ◉ GASOILA ◉ AIRE EGOKITUA ◉ ALTZARIAK
MANPARAK ◉ OSAGAIAK ◉ GREMIOEN KORDINAZIOA ◉ ERREFORMAK

IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxa: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net

EIZAGUIRRE
OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

- Espezialistak ogi artisauan, txapata ogietan, opiletan...
- Zure osasuna zaintzen duen ogia: diabetesa, hipertentsioa, idorreria, kolesterola, anemia, digestio laguntzailea...
- Ogia beroa izango dugu goiz eta arratsaldez!




San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88

# Maalako gune askea

## Ondo pasatzeko ereduari erreparatzeko deia egin dute jai batzordekoek



Urteroko ekintzak eta berritasunak uztartuta antolatu du Maalako Gune Askeak aurtengo jaien egitaraua. Bezpera egunean, Herrira eguna ospatuko dute presoen eta iheslarien etxeratzearen aldeko bazkariarekin, eta bazkalosteko kantaldiak eta geroko kalejirak jarriko du jai-giroa Maalan eta inguruetan.

Txiki eguneko urteroko dantzaldia ere ez da faltako aurten; iaz Maala dantzan jarri zuen talde berbera, Laket, izango da aurten ere trikitiaren laguntzaz gerturatutakoak dantzan jartzearen arduraduna. Iluntzean egingo dute lehenengo saioa, eta ondo afalduta, 23:00etatik 1:00ak bitartean, bigarrena.

Bizartegia izeneko egitasmoak ere errepikatuko dute aurten. Iaz egin zuten lehen saioa herriko zein kanpoko hainbat musikarik, eta aurten sakontzeko asmoa agertu dute. Inprobisazioa oinarri duen kontzertu berezia da Bizartegia; musikari desberdinak elkarren alboan jarrita inprobisazioari bide ematea helburu duen kontzertua, gerturatutakoak aho zabalik lagatzeko moduko eskaintza.

### Gazteen eguneko berritasunak

Azken urteetan zubiak jendez bete dituen Gazteen Eguneko erreka jaitsierak badauka aurten ere lekua egitarauan, baina gauez ere koadrilen arteko lehian jarraitzeko proposamena egin dute egun hau antolatzen diharduten gazteek. Gauerdian jokatuko duten *Zuek bai artistak!* proban euren sormena erakutsi beharko dute gazteek Maalako oholtza gainera igota, eta goizaldeko ordubietan Plazatik Maalarako bidea egin beharko dute elkarri hanka eta eskuak lotuta.

### Ostalariekin elkarlana

Ostalariekin elkarlanean antolatu dute irailaren 1eko DJ gaua, eta horren garrantzia azpimarratu dute jai batzordeko arduradunek. "Aberasgarria da oso herriko beste eragile batzuekin elkarlanean jaiak antolatzen jardutea, eta gainerako elkarte eta bestelakoei ere zabaldu nahi diegu atea" adierazi dute batzordekideek. Aurrera begira elkarlan hori "zabalagoa" izatea nahiko luketela ere azaldu dute.

Elkarlanari begira, ordea, ez daude horren pozik aurten Udalarekin izandako harremanekin. "Azken urteetan elkarlanerako bideak zabaltzeko ahalegina egin ondoren, aurten horretarako aukerak zeudela uste genuenean dena bertan behera geratu da Udal agintarien erabakiz", nabarmendu dute. Hala ere, aurrerantzean ere bide hori jorratzeko prestutasuna azalduko dutela adierazi du Maalako jai batzordeak.

### Jaia ere eraldaketa eremu

Helburu nagusia ondo pasatzea dela argi dute jai batzordekoek, baina ondo pasatzeko moduari erreparatu eta hori lantzea ezinbestekoa da euren ustez. Jai parekideak bizi nahi dituzte, eta horretarako elkarrekiko errespetua oinarri hartzeko eskatu diete herritarrei. Gune askea ligoteorako, laguntasunerako eta maitasunerako gunea izan dadila nahi dute, eta horregatik "baboso, olagarro eta antzerakoek" lekurik ez dutela jakinarazi dute. Parte hartzeko deia ere egin diete elgoibartarrei; ekinez eta eraginez aktiboki parte hartzeak herriko giroan daukan garrantzia azpimarratu dute. Era berean, mingaina euskaraz bustitzeko aldarria ere egin dute. Gogoratu dute "droga kontsumo basatiaren" aurrean norbera bere buruaren jabe den heinean pasatzen dela ondoen, eta "kontsumo arduratsuaren" apustua egiteko erronka eskatu diete herritarrei. Preso eta iheslariak ere gogoa izan dituzte: "Ez ditugu ahazten, eta jaiak ere beraien etxeratzea azkarra izan dadin lan egiteko erabiliko ditugu" adierazi dute. Finean, jaiak ondo pasatzeko, dibertitzeko, elkar ezagutzeko eta aske izan eta sentitzeko aldarriak izan dituzte ahoan batzordekideek.



# EGITARAUA

## Abuztuak 23, eguena
**San Bartolome bezpera**
15:00 Herriraren bazkaria.
Kantariak egongo dira.
Iluntzean, kalejira

## Abuztuak 24, barixakua
**San Bartolome eguna**
Gauean, kontzertua

## Abuztuak 25, zapatua
**Baserritarren eguna**
Gauean, musika jartzaileak

## Abuztuak 27, astelehena
**Txiki eguna**
19:00 Dantzaldia
Laket taldearekin

## Abuztuak 31, barixakua
**Gazteen eguna**
12:00 Pasta Lehiaketa
14:30 Bazkaria
18:30 Balsa jaitsiera
00:00 Zuek bai artistak!
2:00 Koadrila lasterketa

## Irailak 1, zapatua
DJ gaua: DJ Bull

# Abuztuaren 31ra arte egongo da ikusgai kirol argazkien lehiaketa

Parranda eta festa artean, kirolak ere badu lekua San Bartolome jaietan. Gazteria Sailak, Kirol Patronatuak eta Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, kirol argazkien lehiaketa egin dute aurten ere. 42 argazki aurkeztu dituzte aurten lehiaketara, eta dagoeneko aukeratu dituzte irabazleak. Erakusketa abuztuaren 31ra arte egongo da zabalik.

Aitor Rementeria: Herriko Saria



1. saria: Joaquin Sanchez (Ermua)



35 urtetik beherakoen 1. saria: Borja Eizagirre (Azpeitia)






2. saria: Fernando Zamarbide (Donostia)



35 urtetik beherakoen 2. saria: Oscar Blanco (Eibar)



UBITARTE
BIZIGUNEA
3 LOGELETAKO ETXEBIZITZAK
Lehen 230.000 €-tik
Orain 190.000 €-tik
Sukaldeak barne
Ondo pasa jaiak!
Tel.: 943 744 303
943 812 462
Informazio gehiago:
San Bartolome, 14 behea
www.ubitarte.com
ANTZIBAR
CONSTRUCCIONES-ERAIKUNTZAK




Arregitorre, 2
Tel.: 943 748 019 (Meka)
943 748 397 (EABHI)
www.elgoibarbhi.net
ELGOIBAR ARREITURRE BHI
eta MEKA GLHBI
Jai zoriontsuak opa dizkizuete!

GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK






Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587
*goki@gokierreformak.com*

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

**Fatxadak - Teilatuak**
**Bainugelak - Sukaldeak**
**Igogailuak**
**Gremioen koordinakuntza**

***www.gokierreformak.net***

Ondo pasa San Bartolome jaiak!

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
*www.biena.es*
*info@biena.es*

**Imar**
Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
*www.fjlodoso.euskalnet.net*

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Ongi**
Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea
☎ 943 25 45 22

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Elektrizitatea

**Carranza**
Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

Gremioen GIDA

100 YEARS Alcorta
Forging Our Future









100 urteko lana!

Alcortak San Bartolome jai zoriontsuak
opa dizkie elgoibartar guztiei